

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Bastidako Udala

Ayuntamiento de Labastida

2018





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	9
III.2 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	9
III.3 Kontratazioa.....	9
III.4 Beste batzuk.....	11
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	12
V. URTEKO KONTUAK.....	15
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	19
A.2 Kontabilitatea eta aurrekontuak	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	21
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	22
A.5 Langileria-gastuak.....	23
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	24
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	25
A.8 Inbertsio errealak, ibilgetua eta epe luzeko finantza inbertsioak.....	25
A.9 Zorpetzea	26
A.10 Zordunak	27
A.11 Hartzekodunak	28
A.12 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	28
A.13 Garapen ekonomiko eta sozialerako tokiko agentzia	29
A.14 Labastida Gestión Municipal, SL.	29
A.15 Kontratazioaren analisia.....	31
ALEGAZIOAK	33



ABREVIATURAS	35
I. INTRODUCCIÓN.....	37
II. OPINIÓN.....	38
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	38
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	38
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	39
III.1 Presupuesto y contabilidad	39
III.2 Transferencias y subvenciones concedidas	39
III.3 Contratación	39
III.4 Otros	41
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	42
V. CUENTAS ANUALES	45
ANEXOS	49
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	49
A.2 Contabilidad y presupuestos.....	49
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	51
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	52
A.5 Gastos de personal	53
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	54
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	55
A.8 Inversiones reales, inmovilizado e inversiones financieras a largo plazo ...	55
A.9 Endeudamiento	56
A.10 Deudores.....	57
A.11 Acreedores	58
A.12 Actuaciones urbanísticas y planeamiento	58
A.13 Agencia Local de Desarrollo Económico y Social.....	59
A.14 Labastida Gestión Municipal, SL	59
A.15 Análisis de contratación	61
ALEGACIONES	63



LABURTZAPENAK

ABLE	Aldi Baterako Laneko Enpresa.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
ALH	Arabako Lurralde Historikoa.
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
AO	Administrazio Orokorra.
BPG	Barne Produktu Gordina.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
EA	Erakunde Autonomia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
ED	Errege Dekretua.
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusia.
EIOZ	Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga.
FA	Foru Araua.
FOFEL	Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiriko Hondakin Solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
LOP	Lurraren ondare publikoa.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
PFEZ	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
PGPN	Publikotasunik gabeko Prozedura Negoziatua.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
TMIZ	Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.
TTEE	Toki erakundeak.
XG	Xedapen gehigarria.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Bastidako Udalaren 2018ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, aurrekontuaren likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Bastidako udalerrriak 1.445 biztanle ditu 2018ko urtarrilaren 1ean eta bere egituran honako erakunde hauek barne hartzen ditu: Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Tokiko Agentzia erakunde autonomoa (ikus A.13) eta Labastida Gestión Municipal SL sozietatea, % 100ean partaidetua (ikus A.14). Gainera, Biasteri-Arabako Errioxako kuadrillako kide da, zeinak Udalari gizarte-laguntza, HHSen kudeaketa eta artxibo zerbitzuak ematen baitizkio, eta Arabako Errioxako Uren Partzuergoko kide (uraren ziklo osoaren kudeaketa).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1. Udalak 2018ko ekitaldian energia elektrikoa hornitzeko zerbitzua kontratatu zuen, guztira 134.493 euroren zenbatekoan, esleipen prozedurari dagozkion betekizunak saihestuta eta SPKLren 156 artikulua xedatutakoa urratuz.

Epaitegi honen iritzira, Bastidako Udalak, erantsitako paragrafoan aipatutako ez-betetzea alde batera, zuzentasunez bete du 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik jakiteko Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko eta amortizazio metatuko saldoek jasotzen duten ondasun eta eskubideen egiazko egoera, ezargarriak zaizkien balorazio-printzipio eta -arauei jarraikiz (ikus A.8).
2. Kontu Orokorrak ez ditu barne hartzen Labastida Gestión Municipal SLren eta Garapen ekonomiko eta sozialerako tokiko agentzia erakunde autonomoaren egoera finantzarioak, zeinak jarduerarik ez badute ere, ez diren desegin (ikus A.13 eta A.14).
3. Udalak ez du oroitidazkian bere Kontuetan eragina izan dezakeen kontingentzia baten berri ematen, norbanako batek jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtso batetik eratorria (ikus A.12).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Bastidako Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arautegian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2018ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2017ko abenduaren 31 baino lehenago behin betiko onartu, Arabako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 FAREN 15.2 artikulua agintzen duen moduan.
- 2018ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra ez zaio Osoko Bilkurari onartzeko aurkeztu 2019ko azaroaren 20ra arte (ikus A.2); ordea, izapide hori nahitaez uztailaren 31 baino lehenago egin behar da (ALHko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 FAREN 63. artikulua).
- Udalak ez du epe laburrera jasotako fidantzen kontuaren saldoaren xehakapena, 129.826 eurorena (ikus A.11).
- Udalak aztertu egin beharko luke ekitaldi itxietako ordaintzeko dauden zorren eskagarritasuna eta horien saldoak araztu (ikus A.11).
- Udalak ez ditu egoki kontabilizatzen 2018ko ekitaldian gastua baimendu eta erabiltzeko faseak, ALHko toki entitateen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Udalak ekitaldi horretarako onartutako Aurrekontua Egikaritzeko Arauan xedatutakoari jarraikiz.

III.2 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Ez da betetzen Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari informazioa emateko obligazioa, Dirulaguntzen Lege Orokorren 20. artikulua arautzen duena.
- Orokorrean ez da egiaztatzen dirulaguntzen onuradunak egunean daudenik zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan (DLOren 13. artikulua).

III.3 KONTRATAZIOA

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak finkatu, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan.

Kontratazio espedienteak (ikus A.15)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden bost kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- 139.700 euroan esleitutako kontratu batean (3 zk. espedienteak), ez da ageri kontu-hartzailetzak alde aurreko fiskalizazioa egin duenik, ez eta kontratazioaren oroitidazki justifikagarrikerik ere.
- 3 kontratutan (2, 3 eta 5 espedienteak), horietako bi 289.704 euroren zenbatekoan esleituak eta hirugarrena urteko kanon batekin, honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:
 - Bi kasutan (2 eta 3 zk. espedienteak) eskaintzen balorazioan puntuak eskuratzen dira kalitatezko ziurtagiriak izateagatik; ordea, irizpide hori ez da onargarria eskaintzak balioztatzeko, ez baitaio kontratuaren xedeari zuzenean lotzen-
 - Bi kontratutan (2 eta 3 zk. espedienteak) esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen da, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen den horiek aurkeztea zehaztu gabe.
- Guztira 267.497 euroren zenbatekoan esleitutako bi kontraturen pleguek (2 eta 4 espedienteak) ez dute apirilaren 7ko 3/2016 Legeak agindutako hainbat ohar edo informazio jasotzen, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeari dagokionez. Gainera, aipatutako kontratuen eta beste baten -139.700 euroan esleitutakoa (3 zk. espedienteak)- esleipen ebazpenek ez dute ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen, aipatutako arauak agintzen duen moduan.
- Aztertu ditugun kontratu guztietan alkatea da kontratazio organoa eta aldi berean, kontratazio mahaiaren burua; honek ez du betetzen zereginen ezinbesteko bereizketa, pertsona berean ez daitezen elkartu esleipen proposamena jaulki eta hartzeko izateak.
- 117.493 euroan esleitutako kontratu batean (4 zk. espedienteak) ez da behar hainbat justifikatutzat jotzen kuantifikatzeko balio-judizio baten baitako diren irizpideen balorazioa. Gainerako irizpideak baloratzeari aintzat hartu diren formulek eskaintza ia guztiei puntuazio berbera ematen zuela aintzat hartuta, balorazio hori erabakigarria suertatu zen esleipenean.

Kontratu txikiak izapidetzea

- Ez dago erasota AFAn nahitaezkoa den baimena eman duenik liburutegiko eta kale garbiketako langileak kontratatzean, 2018ko ekitaldian Aldi baterako Lan Enpresa baten bitartez egindakoa, hurrenez hurren, 9.592 euroren eta 15.246 euroren zenbatekoan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4 BESTE BATZUK

Ondarea eta ondasun-zerrenda

- Udalaren inbentarioa 1996koa da eta ez dira orduz geroztik inbentarioaren urteko zuzenketa nahitaezkoak egin (1372/1986 EDren 33. art., ekainaren 13koa, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena). Udalak ez du Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasun eta baliabideen zerrendarik (Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 112.3 artikulua).

Gardentasuna

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitorpenak eta izenpetutako hitzarmenei eta emandako dirulaguntza eta laguntzei buruzko datuak.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeei buruzko informazioa

- 2018ko urtean ez ziren mamitu hornitzaileei ordainketarako aurreikusitako epeak bete izanari buruzko hiruhileko txostenak (merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4.3 artikulua -abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena-).



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2016(*)	2017(*)	2018	2016	2017	2018
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	1.289	1.272	1.290	882	875	892
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	871	1.002	1.011	597	689	700
Ondare sarrerak (5. kap.).....	69	70	76	48	48	53
A. Diru-sarrera arruntak.....	2.229	2.344	2.377	1.527	1.612	1.645
Langile-gastuak (1. kap.).....	378	350	414	259	241	286
Ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuak (4. kap.).....	1.224	1.091	1.248	839	750	864
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	208	214	268	142	147	186
B. Funtzionamendu gastuak.....	1.810	1.655	1.930	1.240	1.138	1.336
Aurrezki gordina (A-B).....	419	689	447	287	474	309
- Finantza gastuak (3. kap.).....	8	5	3	6	3	2
Emaitza arrunta.....	411	684	444	281	471	307
- Maileguren amortizazioa (9. kap.).....	190	191	69	130	132	48
Aurrezki garbia.....	221	493	375	151	339	259
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	1	1	-	-	1	-
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	88	370	21	60	254	15
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	112	249	455	76	171	315
- Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(23)	122	(434)	(16)	84	(300)
Eragiketa ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	388	806	10	265	555	7
Diruzaintza Geldikina.....	984	1.543	1.414	674	1.061	978
Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina.....	616	910	1.029	422	626	712
Zorpidetza.....	882	691	622	604	475	430

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: 2017an % 5 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean eta 2018an % 1 baino igoera osagarri handiagoa erregistratu du; honenbestez, aztertutako aldiaren guztira % 6,5 inguruko bariazioa positiboa izan dute. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek apenas izan duten aldaketarik aztertutako aldiaren, eta ez dituzte % 1,5eko urtearteko fluktuazioak jo.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Sarrera hauek % 15eko igoera izan dute 2017an aurreko ekitaldiaren aldean eta berriz egin dute % 1 inguru gora 2018an, epe guztiaren bariazioa % 16ra ekarri. Zerga itunduetako partaidetzari (FOFEL) dagozkion sarrerak eragiten dute bereziki bariazioan, % 51ra arte, baina esanguratsua da, halaber, Lanbideko dirulaguntzek, EAeko Administrazio Orokorrekoek eta AFaren gainerakoek izan duten igoera.



Funtzionamendu-gastuak: Aztertutako aldian bariazio, ehunekoetan emana, sarrera arruntek izan dutenaren ia parekoa da. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** Gastuak 2017an izan duen murriztapena (% 7) langile batek erretiroa hartu izanaren ondorio da (ikus A.5); gainera, 2016an, ordaintzeke zegoen 2012ko aparteko soldataren zatia ordaindu behar izan zen. 2018ko igoera (% 18) Lanbidek eta AFak enplegua sustatzeko egindako deialdien babesean gauzatutako lan-kontratuei lotutako gastuari zor zaio (ikus A.4 eta A.5), eta neurri txikiagoan, aplikatutako soldata igoerari (ikus A.5).
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa:** 2017an % 11 egin dute behera aurreko ekitaldiaren aldean, nahiz 2018an % 14 igo diren berriz; honenbestez, aztertutako aldian % 2ko bariazio positibo garbia izan dute. 2017an izandako beheraldia, batik bat, kaleen mantentze-gastuek eragin dute eta 2018an aztertutako aldiaren hasierako maila bertsua eskuratu dute berriz.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Kontzeptu honen izeneko gastuak % 29 egin du gora aztertutako aldian eta igoaldiaren zatirik handiena 2018ko ekitaldian gertatu da, batik bat Biasteri-Arabako Errioxako kuadrillari eta Gatzaga Buradongo administrazio-batzordeari egindako transferentziek izan duten igoeraren ondorioz.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Bi magnitudeek saldo positiboa izan dute aztertutako aldiko hiru ekitaldietan, igoera handiak izan dituztelarik 2017an eta murrizketak 2018an, nahiz ez diren hain nabarmenak izan, batik bat aurrezki garbiaren kasuan, ekitaldi horretan karga finantzarioak behera egin baitu. Aztertutako aldi osoaren bilakaera izan da % 7 eta % 70 bitartean igotzea, hurrenez hurren, 2016ko ekitaldian sarrera arrunten gainean % 19 eta % 10 egitetik, 2018an % 19 eta % 16 egitera aldatuz.

Kapital eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo positiboa izan zuen 2017an, izan ere ekitaldi horretako kapital-transferentziek eragindako diru-sarrerek gora egin zuten; gainerako ekitaldi guztietan, berriz, saldoak negatiboak izan ziren. Inbertsio errealen kontzeptuan gasturik altuena 2018an erregistratu zen eta horren ondorioz, ekitaldi horretan aurrezki garbi positiboak ez du kapitalezko eragiketen emaitza negatiboa berdintzen.

Eragiketa ez-finantzarioen emaitza: Positiboa izan da aztertutako aldi guztian zehar, nahiz % 97tik gorako beheraldia izan duen aldi guztian zehar..

Diruzaintza-geldikina: Bilakaera positiboa izan du aztertutako aldian eta epe osoan zehar % 44ko igoera izan du.

Zorpetzea: Ia % 30 egin du behera aztertutako aldian, egindako amortizazioen ondorioz. Aztertutako aldian ez da beste zorpetze eragiketarik gauzatu.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ondorioa: Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du eta behar hainbateko baliabideak ditu ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena egin du aurrekontuaren egonkortasun printzipioa eta gastuaren eta zor publikoaren araua betetzen dela adieraziaz. Txostenak Udalari dagokionez honako hau jasotzen du 2018ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2017ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGaren erreferentziazko hazkuntza tasa gainditu (% 2,4).
- Zor publikoaren helburua bete da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABEA	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak	A.3	859	-	859	942	855	87	% 110
2. Zeharkako zergak	A.3	37	-	37	30	25	5	% 81
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	285	-	285	318	300	18	% 112
4. Transferentzia arruntak	A.4	902	101	1.003	1.011	945	66	% 101
5. Ondare-sarrerak.....	A.8	71	-	71	76	67	9	% 107
7. Kapitaleko transferentziak.....	A.4	55	-	55	21	-	21	% 38
8. Aktibo finantzarioak		-	1.298	1.298	-	-	-	E/E
SARRERAK GUZTIRA		2.209	1.399	3.608	2.398	2.192	206	(*)104

(*) Exekuzioaren % kalkulazterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileria-gastuak.....	A.5	401	135	536	414	407	7	% 77
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontrat.	A.6	1.309	295	1.604	1.248	1.111	137	% 78
3. Gastu finantzarioak.....		8	-	8	3	3	-	% 38
4. Transferentzia arruntak	A.7	273	11	284	268	216	52	% 94
6. Inbertsio errealak	A.8	145	958	1.103	455	434	21	% 41
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	73	-	73	69	69	-	% 95
GASTUAK GUZTIRA		2.209	1.399	3.608	2.457	2.240	217	% 68

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK.	KOBR.	/AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak	A.10	996	10	489	497
Ordaintzeko dauden saldoak.....		223	-	191	32
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(10)		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	2.398
Obligazio aitortuak.....	(2.457)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(59)
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(10)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(69)
Finantzaketako debideratzeak.....	249
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	289
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	469

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (A)	1.664
KOBRAZTEKO DAUDEN SALDOAK 2018/12/31N (ikus A.10) (B)	704
Diru-sarrerren aurrekontukoak, unekoa	206
Sarrerren aurrekontukoak, itxia.....	497
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketekoak	1
ORDAINZTEKO DAUDEN SALDOAK 2018/12/31N (ikus A.11) (C)	399
Gastuen aurrekontukoa, arrunta	217
Gastuen aurrekontukoa, itxiak.....	32
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak	150
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (ikus A.11) (D)	(1)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)	1.968
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak	554
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina	385
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	1.029
ZORPETZEA 18.12.31N (ikus A.9)	622



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2018	2017		ERANSKINA	2018	2017
AKTIBO EZ ARRUNTA		7.958	8.168	ONDARE GARBIA		8.750	9.017
Ibilgetu ez-materiala	A.8	28	12	Ekarrirako ondarea.....		9.530	9.530
Ibilgetu materiala	A.8	7.928	8.152	Sortutako ondarea		(780)	(513)
Taldeko enpresetan inbertsioak	A.8	2	4				
				PASIBO EZ-ARRUNTA	A.11	479	548
				Epe luzeko zorrak		479	548
AKTIBO ARRUNTA		1.814	1.905	PASIBO ARRUNTA	A.11	543	508
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.10	150	453	Epe laburreko zorrak.....		325	324
Epe lab. finantza inberts.....		-	61	Hartzed. eta ordain. bst knt b.		218	184
Eskud. eta best. akt. baliok.	(*)	1.664	1.391				
AKTIBOA, GUZTIRA		9.772	10.073	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		9.772	10.073

(*) 2018ko ekitaldi itxierako saldoa ia oso-osorik kontu korranteetako gordailuei dagokie, eskudiruko 82 euro izan ezik.

EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA, 2018 eta 2017KO EKITALDIETAKOA

Euroak milakotan

	2018	2017
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	1.163	1.156
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	1.032	1.371
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	112	104
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	89	79
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	2.396	2.710
Langileria-gastuak.....	(421)	(361)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(268)	(214)
Hornikuntzak.....	-	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(1.241)	(1.080)
Ibilgetua amortizatzea.....	(659)	(637)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(2.589)	(2.292)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(193)	418
Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk	-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	(193)	418
Sarrera finantzarioak.....	2	3
Gastu finantzarioak.....	(3)	(4)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(64)	(322)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(65)	(323)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(258)	95



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Bastidako Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Lege horiek euren artikuluetan definitzen dituzte udalek dituzten gaitasunak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak; aipatzekoak dira besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Kudeaketa zuzen edo zeharka udalek eman dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

A.2 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

2018ko ekitaldirako aurrekontua 2018ko martxoaren 28ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urte bereko apirilaren 16an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2018ko maiatzaren 28an eman zen argitara BAOn.

Ondoren, 2018ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakatuko ditugu:

KAPITULUAK	uroak milakotan		
	KREDITUEN TXERTAKETA	KREDITU GEHIGAR.	GUZTIRA
1. Langileria-gastuak.....	61	74	135
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa	149	146	295
4. Transferentzia arruntak.....	1	10	11
6. Inbertsio errealak	713	245	958
GASTUAK GUZTIRA	924	475	1.399

Adierazitako aurrekontuko aldaketak finantzatzen dira nagusiki (% 93) Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2017ko ekitaldi itxieran, 1,3 milioi euroren zenbatekoan.

Ekitaldian aurrekontua aldatzeko bost espediente izapidetu ziren eta horietako bi Alkatetza Dekretu bidez onartu zituzten; gainerakoak, berriz, Udalbatzara eraman ziren onartzeko. 2,2 milioi euroren hasierako aurrekontua % 63 gehitu zen eta behin betiko aurrekontuak 3,6 milioi euro egin zituen. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

PROIEKTUA	Euroak milakotan ZENBATEKOA
El Frontin Exekuzio Unitatea urbanizatzeko proiektua.....	237
Florida kaleko parkea zaharberritzea	138
El Olmo kalea zaharberritzea (1).....	105
Rincón del oro eta Mota Alta kaleak urbanizatzeko lanak eta azpiegiturak	74
HAP0a eta Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoa idazteko ordainsariak	46
Kale garbiketako langileen ordainsariak.....	44
Azterketak eta lan teknikoak.....	42
Kiroldegia zaharberritzeko lanak II. fasea.....	30
Beste txiki batzuk.....	208
TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	924
Kalea urbanizatzea A-124 eta La Paz plaza artean	240
Azpiegituren konponketak	60
Kale garbiketako langileen ordainsariak.....	40
Beste txiki batzuk	135
KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA	475

(1) Ikus kontratu nagusiaren analisisa A.15en.

2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2019ko martxoaren 1eko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2019ko azaroaren 20ko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2018ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE	KITATUAK
OHZ.....	669	
TMIZ.....	86	
HILBIZ.....	107	
JEZ.....	80	
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	942	
EIOZ.....	30	
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	30	
HHSen bilketa-zerbitzuaren tasa.....	115	
Udal kiroldegian zerbitzuak emateagatiko tasa.....	93	
Udal errepide eta landa bideak konpondu, hobetu eta zainzteagatiko tasa.....	31	
Beste txiki batzuk.....	79	
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	318	
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	1.290	

Arabako Errioxako Uren Partzuergoak 2011z geroztik ematen du udalerrian uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua eta zerbitzuak eragindako gastuak eta sarrerak bere gain hartzen ditu. Udalak, gainera, Partzuergoari zerga-ahala eskuordetua dauka dagozkion tasa eta prezio publikoak eta uraren kanon autonomikoa ezarri, kudeatu, kitatu eta biltzeko.

Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartu du horien kudeaketa borondatezko aldiari eta 2009ko apirilaz geroztik lankidetzaz hitzarmen bat du AFArekin betearazte bidean diru-bilketa egitekoa.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2018ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZKOAK
Estatuarenak	2	-
EAErenak	63	-
AO: Hainbat dirulaguntza	32	-
Lanbide: enplegu sustapena.....	31	-
ALHrenak	943	21
AFA: Zerga itunduetan partaidetza FOFEL	880	-
AFA: Enplegua sustatzea	27	-
AFA: Hiltegian traba arkitektonikoak konpondu eta kentzea	-	21
ALHren beste zenbait dirulaguntza.....	36	-
Enpresenak	3	-
GUZTIRA	1.011	21

Zerga itunduen kontzeptuan aitortutako sarrerek 2017ko urteari dagokion FOFELen behin betiko likidazioaren zenbatekoa barne hartzen dute, Udalaren alde 10.299 eurorena. Fiskalizazio-gai izan den ekitaldiaren behin betiko likidazioa, 50.597 euroren saldo positiboa erakutsi duena, kontularitzan 2019ko ekitaldiari egotzi zaio.

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2017ko eta 2018ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2018ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZIO		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2018	AITORT. 2017	18/12/31 LZ	PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak	34	33	E/E	1
Funtzionarioen ordainsariak.....	220	207	7	6
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	25	25	1	
Aldi baterako lan kontratuko langileen ordainsariak.....	52	9	E/E	5
Gizarte Segurantzza	81	73		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	2	3		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	414	350	8	13

Ordainketak

Udalbatzak 2018ko uztailaren 26an etxeko langileen ordainsariak % 1,5 gehitzea erabaki zuen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta % 0,25eko igoera osagarria aplikatzea 2018ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2018ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Udalaren aurrekontuaren superabit egoera aintzat hartuta, artikulua berak aurreikusten duen soldata masaren % 0,3ko igoera osagarria ere onartu zen.

LZ eta plantilla

2018an izan diren langileen altak eta bajak, hurrenez hurren zortzi eta zazpi, enplegua sustatzeko planen babesean egindako aldi baterako kontratazioei dagozkie.

Langile finkoei dagokionez, ekitaldi itxieran zegoen lanpostu hutsa 2017ko urtearen erdi aldean sortu zen, langile batek erretiroa hartu izanaren ondorioz. Lanpostu hori 2019an amortizatu eta administrari laguntzaile postu bat sortu da, 2019ko apirilaren 17ko ALHAOn argitara emandako enplegu-eskaintza publikoan barne hartu dena.



A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Obligazio aitortuak
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	304
Azpiegitura eta ondasun orokorrak	201
Beste ibilgetu bat	103
Bulegoko materiala	19
Hornidurak	186
Energia elektrikoa	134
Ura	25
Bestelako hornigaiak	27
Komunikazioak	15
Aseguru primak	14
Zergak	12
Hainbat gastu	144
Jaiak eta herri-ospakizunak	98
Udal kiroldegian ikastaroak	18
Bestelako hainbat gastu	28
Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	547
Udal eraikinen garbiketa	105
Uretako sorospena	59
Udal kiroldegiaren eta sarbide kontrolaren kudeaketa	44
Kale garbiketa eta neguko bideak	40
Lorategiak eta eremu publikoak zaintzea	39
Turismo bulegoa kudeatzea	32
Hirigintzako sorospen teknikoko zerbitzua	30
Manuel Quintanoren ehunurtekoa ospatzeko ekintzak	18
Langileen prestakuntza zerbitzuak	18
Liburutegiko funtsak antolatu eta katalogatzea	16
FAMTRIPen antolaketa touroperatzaileentzako	16
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk	130
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	7
GUZTIRA	1.248



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2018ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta dirulaguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
TRANSFERENTZIAK	228
Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla HHSen kudeaketa, gizarte laguntz. eta artxiboa	164
Gatzaga Buradongo Kontzejua, 2018ko ekarpena	61
Beste txikiago batzuk (3 erakunde).....	3
IZENDUNAK (4 onuradun)	24
LEHIA (2 deialdi)	3
BESTE BATZUK	13
GUZTIRA	268

2014ko apirilaren 24an Udalbatzak onartu zuen Bastidako udalerraren eta Gatzaga Buradongo Kontzejuaren arteko harremanak arautzen zituen testua, zeinak atxikipen-baldintzak aldatu baitzituen. Akordioaren baldintza ekonomikoei dagokienez, Udalak urteko ekarpen finko bat ordaintzeko obligazioa hartu zuen, kontzejuan EIOZ, TMIZ eta OHZ kontzeptuan bildutako diru-sarreraren arabera kalkulaturik, eta inbertsioetarako funts bat, urteko ekarpen finkoaren % 50en zenbatekoan, zeina, kasua balitz, areagotu liteke inbertsio gaietan lankidetzan egokiak hala eskatuko balu. Ez zen, baina, aurreikuspen hau 2018an aplikatu eta honenbestez, ekitaldi horretan kontabilizatutako gastuak urteko ekarpen finkoa eta % 50eko funtsa soilik izan ziren.

A.8 INBERTSIO ERREALAK, IBILGETUA ETA EPE LUZEKO FINANTZA INBERTSIOAK

Hona hemen Udalaren aktibo ez arrunteko kontuen 2018ko kontu-mugimenduak:

	Euroak milakotan				
KONTZEPTU	SALDOA 18/01/01	ESKUALDAK. ALTAK	ETA BESTE	AMORTIZ. ZUZKID.	SALDOA 18/12/31
IBILGETU UKIEZINA	12	20	-	(4)	28
IBILGETU MATERIALA	8.152	430	-	(654)	7.928
Bestelako ibilgetu materiala	8.089	430	63	(654)	7.928
Abian dagoen ibilgetu materiala eta aurrerakinak	63	-	(63)	-	-
IBILGETUKO INBERTSIOAK	-	-	-	-	-
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	-	-	-	-	-
EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK	4	-	(2)	-	(*) 2
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	8.168	450	(2)	(658)	7.958

(*) Udal sozietatean parte hartzearen kontularitzako balioa (ikus A.14).



Aurrekontuko inbertsioen kapituluan aitortutako gastuen eta atxikitako taulan jasotako alten zenbatekoaren arteko aldea sortu da erratz-makina bat erosteari dagokion leasing-aren amortizazio kuotek ez dutelako ondare-kontabilitatean ibilgetuko altarik sortzen; aldiz, pasibo arrunta murrizten dute.

2018ko ekitaldi itxierako egoeraren balantzeak ez du ibilgetu materiala xehakaturako jasotzen aktiboen izaeraren arabera (lursailak, eraikinak, eraikuntzak...), zeinak “Beste ibilgetu material bat” idazpuruak metatuak baitaude. Aktiboen balorazioari dagokionez, hasierako saldoak 1996an egindako inbentariotik eskuratu ziren eta saldo horiek handituz joan dira geroko ekitaldietan, automatikoki, aurrekontuko kontabilitatean erregistraturiko inbertsioen zenbatekoarekin.

Balantzeko “Ibilgetuko inbertsioak” idazpuruan ere ez dira banakaturik jaso udal jabetzako ondareko ondasun higiezinak, zeinetatik dirusarrerak eskuratu baitira hirugarrenek aprobetxatu, erabili edo gozatzegatik; alabaina, 2018ko ekitaldian ondasun higiezinaren errentei dagozkien eskubide aitortuak jaso dira; hona hemen xehakapena:

Euroak milakotan	
ZENBATEKOA	
ONDASUN HIGIEZINEN ERRENTAK	66
Kutxabank SARI lokala alokatzea	36
Telefonia mugikorrerako etxola alokatzea	15
Taberna-garagardotegia errentan ematea	8
Bestelako txikiago batzuk.....	7
APROBETXAMENDU BEREZIAK	10
ONDARE SARRERAK GUZTIRA	76

Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasunak ere ez dira balantzeko idazpuru bereziki batean kontabilizatzen, ez baitago horien inbentarioa besarkatuko duen ustia ketako erregistrorik.

A.9 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

Euroak milakotan							
	% interesa	iraung.	Hasierak. saldoa	Saldoa 18/01/01	amort.	Berriak	Saldoa 18/12/31
Santander Banketxea SA.....	Euriborra 3 hilab. + 0,14	2033	650	419	27	-	392
Kutxabank SA.....	Euriborra 1 urte + 0,5	2025	450	201	25	-	176
Kutxabank SA.....	Euriborra 1 urte + 0,5	2022	301	71	17	-	54
ERABILITAKO ZORPETZEA GUZTIRA			1.101	691	69	-	622
				Epe laburreko iraungipena (ikus A.11)			172
				Epe luzeko iraungipena (ikus A.11).....			450



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10 ZORDUNAK

Hona hemen balantzearen aktibo arruntean erregistraturiko zordunen eta kobratzeko beste kontu batzuen saldoen xehakapena, 2018ko ekitaldi itxieran:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
AURREKONTUKO ZORDUNAK	703
ZALANTZAKO KOBAGARRITASUNEN SALDOAK	(554)
HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK	1
ZORDUNAK ETA KOBATZEKO BESTE KONTU BATZUK EPE LABURRERA	150

Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzintasunaren xehakapena:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	2015 eta lehen.	2016	2017	2018	GUZTIRA
Zerga zuzenak.....	224	48	71	87	430
Zeharkako zergak.....	1	-	-	5	6
Tasak eta bestelako sarrerak.....	48	3	7	18	76
Transferentzia arruntak	-	-	18	66	84
Ondare-sarrerak	16	-	-	9	25
Kapitaleko transferentziak.....	61	-	-	21	82
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA	350	51	96	206	703
ZALANTZAKO KOBAGARRITASUNEN SALDOAK					(554)
AURREKONT. ZORDUNAK GUZTIRA, ZUZKIDURARIK GABE					149

Udalak nekez egingarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzintasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak (otsailaren 9ko 3/2004 FAREN 48.6 artikulua, ALHren toki entitateen aurrekontuei buruzkoa) eta, baita, zerga, tasa eta bestelako sarrerei dagozkien 2017an jatorria duten kobratzeko saldoen % 85 eta 2018an jatorria duten kobratzeko eskubideen % 65 ere.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.11 HARTZEKODUNAK

Hona hemen Balantzeko pasiboko kontuen 2018ko abenduaren 31ko xehakapena:

KONZEPETUA	Euroak milakotan		
	PASIBO ARRUNTA	PASIBO EZ ARR.	GUZTIRA 18/12/31
HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK	121	29	150
Errentamendu finantzarioagatik hartzekodunak (*)	(29)	29	-
Jasotako fidantzak eta gordailuak	130	-	130
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzekoduna	14	-	14
Gizarte Segurantza hartzekoduna	2	-	2
Elkarkidetza	1	-	1
Bestelako hartzekodun ez aurrekontukoak	3	-	3
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	249	-	249
BANKUKO ZORPETZEA (ikus A.9)	172	450	622
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK	1	-	1
PASIBOA GUZTIRA	543	479	1.022

(*) Kitatu beharreko saldoak.

Ekitaldi itxietako aurrekontuko hartzekodunen saldoen zati bat, 32.197 euroren zenbatekoa egiten duena, baliogabetu egin beharko litzateke, jada zor iraungie dagokielako.

A.12 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

Gaur egun indarrean da urtarrilaren 27ko 28/2000 Foru Agindu bidez onartutako Bastidako udalerriaren Plangintzako Arau Subsidiarioen testu bategina (martxoaren 31ko ALHAOn argitara eman zena), egin zaizkion unean uneko aldaketekin eta garapen-araudiarekin batera. 2017ko azaroaren 22ko Udaltzako ebazpen bitartez Bastidako udalerriaren HAPOa eta Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoaren prozedurari buruzko agiriak idazteko kontratuaren esleipena onartu zen, zeinaren egikaritzak atzerapen handiak izan baititu.

Ondarearen gaineko erreklamazioa

246/2017 epai bitartez (irtoa dena 122/2018 epai bidez) norbanako bat zigortu da bere jabetzakoak ez ziren lursailetan obrak egiteagatik, lurak berroneratu eta aurreko egoerara ekartzera. Interesdunak ondarezko erantzukizun ekintza aurkeztu du Udalaren aurka eta 423.531 euro eskatzen dizkio, adieraziaz lanak egin baino lehen hirigintzako kontsulta bat egin zuela lursailaren jabetzaren gainean eta Udalak okerreko informazioa eman ziola; gainera, udal ordezkari gorenak obrak Udalarentzat interesekoak zirela ziurtatu zion. Aurkeztutako erreklamazioaren arabera, lursailaren jabetzari buruz katastroan eta arau subsidiarioetan dauden datuak ere okerrak lirateke.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak nahitaezko txostena jaulki aurretik, zeinak ondorioztatu baitu Udalak ez duela ondarezko erantzukizunik, 2018ko urriaren 19ko



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Alkatetzako Dekretu bidez ezetsi egin da aipatutako ekintza eta abenduaren 19ko beste dekretu baten bidez, baita ezespren horren aurka aurkeztutako aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa ere. Norbanakoak administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat aurkeztu du, ebazteko zain dagoena; 337.431 euro da azkenik eskatzen den kopurua.

A.13 GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO TOKIKO AGENTZIA

2007ko maiatzean Udalak Garapen Ekonomiko eta Sozialaren Tokiko Agentzia erakunde autonomoa sortzeko erabakia hartu zuen eta hasiera batean Estatutuak onartu zituen, zeinak behin betiko onartu ostean, abuztuaren 24ko ALHAOn eman baitziren argitara. Estatutuen arabera, erakundearen helburua udalerrian garapen ekonomikoa eta enplegua bultzatzeari lotzen zaio.

Erakundeak ez du sortzetik inongo jarduerarik izan eta ez ditu ez urteko kontuak egiten, ez aurrekontuak onartu eta kitatzen (ikus II.2 atala).

A.14 LABASTIDA GESTIÓN MUNICIPAL SL

2005eko Udalbatzak erantzukizun mugatuko sozietate bat eratzeko erabakia hartu zuen eta Udalak oso-osorik harpidetu zuen kapitala, Bastida udalaz gairik garrantzia duen baliabide turistiko modura sustatu, bultzatu eta indartzeko.

Kapital soziala hasiera batean 55.000 euro zen eta 2006ko otsailean Udalbatzak 192.000 euroan handitzeko erabakia hartu zuen. Erantsitako taulan ordaintzeko modua laburbildu dugu:

KONTZEPTUA	ESKUDIRUA	Euroak milakotan	
		HIGIEZINEN EKARPENA	KAPITAL SOZIALA
Hasierako ekarpena	2	53	55
Kapital zabalkuntza.....	-	192	192
EKARRITAKO KAPITALA GUZTIRA	2	245	247

(Ikus A.8)

Sozietateak erabaki zuen Udalak emandako higiezinak San Ginés Labastida SA sozietatearen akzioen % 20 erosteko baliatzea, nahiz horien eskualdatzea ez zen azkenean gauzatu.

Bestetik, elkarte batek Udalbatzak (bere horretan edo sozietatearen Batzar Nagusi modura eratuta) hartutako zenbait erabakiren aurka deuseztasun-ekintzak abiarazi zituen; ordea, ezetsi egin ziren 2011ko apirilaren 20ko Alkatetzaren Dekretu bidez. Dekretu horren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa EHJANek ebatzi zuen uztailearen 17ko 436/2013 epai bidez, zeinak Udalbatzak hartutako erabaki hauek baliogabe uzten baitzituen:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Interes estrategikoko izendatzea udalerrian golf-zelai bat jarri eta eraikitzeko proiektua eta egoki ziren administrazioko izapideak abiaraztea sozietate misto bat eratzeko San Ginés Labastida SA merkataritzako sozietatearekin batera.
- Labastida Gestión Municipal SL sozietatea eratzea eta onestea Estatutuak eta kapital sozialari egin beharreko ekarpena.
- Sozietatearen kapitala handitzea.

Epaiaren ondorioz, 2013ko uztailaren 17an, San Ginés Labastida SA sozietateko Batzar Nagusiak sozietatea desegiteko erabakia hartu zuen, likidazio aldia abiaraztea eta administratzaileak kargugabetzea eta likidatzaileak izendatzea. Udalbatza berariaz da erabaki horien jakitun 2013ko abenduaren 23an egindako bilkuran. Gaur egun bai udal sozietatea, bai san Ginés Labastida SA desegin gabe daude. Udalak balioetsi du ez dagoela arriskurik desegite-prozesuan azken sozietate honek eragindako galerengatik inongo kosturik bere gain hartu behar izateko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.15 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu, Udalak 589.809 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bost kontraturen lagin bat hartuta:

AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK				Euroak milakotan	
KONTRATUA	ESLEIPENA			GASTUA 2018	AKATSAK A
	DATA	PROZED.	ZENBAT.		
OBRAK					
1.El Olmo kalean urbanizazio eta azpiegitura lanak.....	ira-17	PGPN	183	95	A4
ZERBITZUAK					
2.Udal aretoen garbiketa	mai-18	lrekia	150	60	A2,3,4
3.Kaleak garbitu eta ekortzea eta neguko bide-lanak	abu-18	lrekia	140	20	A1,2,3,4
4.Uretako sorospena udal igerilekuetan	mai-18	lrekia	117	59	A3,4,5
PRIBATUA					
5.Udal jabetzako garagardotegia ustiatzea.....	api-18	lrekia	(*)	-	A2,4
GUZTIRA			590	234	

(*) Esleipendunak urtero 8.070 euroren kanona ordaintzeko obligazioa hartzen zuen eta bere proposamenean jasotako zenbait hobekuntza egitekoa. 2018ko kanona aurrekontuko ondare sarrerren kapituluko eskubide aitortuetan dago jasoa (ikus A.8).

Euroak milakotan		
AKATSAK	ESPEDEINTE KOP.	ESLEIPENAREN
		ZENBATEKOA
A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA		
1. Kontratazio-espeditatearen edukiari dagozkion akatsak	1	140
2. Pleguetan aurreikusitako esleipen irizpideei dagozkien akatsak	3	290
3. Pleguetan edo esleipen ebazpenetan zenbait informazio ez barne hartzea	3	407
4. Kontratazio organoak, aldi berean, kontratazio mahaian buru egiten du.....	5	590
5. Proposamenen balorazioari dagokion akatsa.....	1	117





ALEGAZIOAK, BASTIDAKO UDALAK HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN 2018KO EKITALDIKO BEHIN-BEHINEKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOAK

AURREKARIAK

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) Bastidako Udalaren (Araba) 2018ko ekitaldia fiskalizatu du. Horren ondorioz, egindako fiskalizazio-lanaren behin-behineko txostena bidali du eta entzunarazteko eskubidea aitortu dio Udalari, egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan.

Hauek horrela, honako alegazio hau egin du Bastidako Udalaren 2018ko ekitaldiaren behin-behineko fiskalizazio txostenari dagokionez.

ALEGACIONES


Kontratazio III.3 epigrafeari dagokio. Aztertutako kontratu guztietan Alkatesa da kontratazio-organua eta kontratazio-mahaiaren presidentea. Beraz, ez da errespetatzen, pertsona bera organu-proposatzailea eta adjudikazio-proposamenaren hartzailea ez izateko beharrezko funtzioen banaketa.

Sektor Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) Bigarren Xedapen Gehigarriaren 7 zenbakiko atalean aurreikusitakoa harturik kontuan ez dago ondorioztatzerik kontsiderazio juridiko hori.

Arauaren gramatika-interpretazioan oinarriturik, honakoa baieztatu daiteke:

- a) udal erakundeen kide hautetsiak kontratazio mahaikideak izan daitezkeela. Nolabait ere, horiek ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago,
- b) udal erakundeen kide hautetsiak kontratazio-mahaiaren presidentea izan daitezkeela; eta legeak espresuki ez du debekatzen Alkatea edo Alkatesa bere udalaren kontratazio-mahaiaren presidentea izatea.

Arauaren interpretazio sistemakoan oinarriturik baieztatu daiteke arau horrek desplazatzen duela SPKLaren 326 artikulua xedaturikoa, eta bereziki, kide hautetsiak kontratazio-mahakideak izan ezin direlako debekua.



10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

ABREVIATURAS

AG	Administración General.
BOTHA	Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DA	Disposición Adicional.
DFA	Diputación Foral de Álava.
EELL	Entidades Locales.
ETT	Empresa de Trabajo Temporal.
FOFEL	Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.
LGS	Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
LRBRL	Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
NF	Norma Foral.
OA	Organismo Autónomo.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
PIB	Producto Interior Bruto.
PPS	Patrimonio Público de Suelo.
PNSP	Procedimiento Negociado Sin Publicidad.
RD	Real Decreto.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.
THA	Territorio Histórico de Álava.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.





I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Labastida/Bastida para el ejercicio 2018.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

